



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAGARKIA

2023ko uztailaren 27ko Alkatetza Dekretu bidez honakoa ebatzi da:

LEHENA.- Azkoitiko udalak, UROLA EKITEN IX proiektuaren eta EKOBAILARA XI azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko (1. motako jarduera), lehenengo fasean, 2 balio anitzeko peoi (biak 6 hilabeterako eta %100 lanaldian) – kontratatzeko **deialdia** egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera.

BIGARRENA.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak eta lanpostuen ezaugarriak jasotzen dituen dokumentua onartzea, ebazpen honi eranstean zaizkionak.

HIRUGARRENA.- Deialdiari dagokion zabalkundea ematea, Udaleko web orrian lan eskaintza atalean, berrien atalean, komunikabide desberdinetan eta *Urolanprest*-en, **betiere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2023ko diru-laguntzen deialdia onartzen duen 2023ko maiatzaren 18ko ebazpenaren 13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**

LAUGARRENA.- Hautagaien zerrenda, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez osatuko da, erakunde horrek egingo duen aurre-hautaketa, ezarritako ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuz.

BOSGARRENA.- Aurre-hautaketa eginda, udalak dagokion hautaketa egingo du, horretarako ondoko Epaimahai kalifikatzailea eratuko delarik:

- Epaimahaiburua: Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.
- Epaimahaikideak:
 1. Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Garapen Iraunkorra Saileko teknikari bat.
 2. Lantaldeko Arduraduna.
- Epaimahaiko Idazkaria: Idazkaritza Saileko Erdi mailako Teknikaria

****Deialdiaren oinarrietan xedaturikoaren arabera, hautaketa prozesuan, Epaimahaikideen artean, gutxienez emakume bat egon beharko dela xedatzen du.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontu-hartzailera sailari ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsoren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, birjarpen errekurtsoa tartekatatu zuen datatik kontatzen hasita.

ALKATE-UDALBURUAK,